



# Eskola Lurraldea

Egoitza artistikorako  
deialdia  
2024



Colegio Público  
**BUZTINTXURI**  
Ikastetxe Publikoa

**|| Huarte**  
ARTE GARAIKIDEKO ZENTROA  
CENTRO DE ARTE CONTEMPORANEO

Eskola Lurraldea deialdiaren oinarriak.  
Eskola-arazo batera hurbiltzeko proiektu artistikoa.  
2024

[Deialdiaren itxiera 2024eko urtarrilaren 15a - 5. orrialdea](#)



**Eskola Lurraldea** egoitza artistikorako deialdi bat da, eskolako mugez haratago jo nahi duena hezkuntza testuinguruekin lan eginez eta eskolak ingurune hurbilarekin duen harremana birpentsatuz.



## SARRERA

Eskola Lurralde deialdiak helburu bikoitza du. Alde batetik, hezkuntza proiektu baten alde egitea, eskolako mugak gaindituz eta honek lurraldearekin duen harremana birplanteatuz. Hau lortzeko arteetatik eta pentsamendu garaikidetik hurbil dauden estrategiak edo proposamenak erabili nahi dira. Bertzetik, tokiko artistentzat Nafarroako hezkuntza komunitateetan lan eta esperimentazio testuinguruak sustatu nahi dira.

Deialdi hau gizarte edo hezkuntza eremuekiko interesa duten edota horiekin harremana duten artistei zuzenduta dago. Haien jardun artistikoa hezkuntzaren testuinguruan kokatutako arazoan inguruko hausnarketa giroarekin lotzea/elkartzea bilatzen da.

Deialdi honen muina sare-lanean dago, partaidetza prozesuetatik abiatuta, ezagutzak eraikitzeko eta ondorioz, kultur ekoizpenaren eszenatoki gisa.

## TESTINGURUA

Lehen edizio honetan CEIP-IP Buztintxuri ikastetxe publikoarekin lan egitea proposatzen dugu, eskolak 2011-2012 ikasturteetik egiten daraman PASEARTE jai-testuinguruaren barruan.

### Ikusi Eranskina 1.

Eskolaren arreta erakarri eta Uharte Zentroarekin eztabaida eduki ondotik egoitza honetan parte hartzea ahalbidetu duten galderak honako hauek izan dira:

- > Zer forma eta formatu hartzen ditu Artea eta Eskola harremanak?
- > Zein arte zein hezkuntzarako?
- > Artean edo artearen bidez hezi?
- > Hezkuntza komunitate bezala, zer ulertzen dugu Heziketa Artistiko gisa?

## NORI DAGO ZUZENDUTA

Nafarroan bizi diren eta prozesu eta eztabaida sozial edo hezigarrien inguruan ikerketa prozesu bat garatzeko interesa duten artista edo kolektiboak.

## ZER ESKAINTZEN DA

- > 2300 euro (zergak eta atxikpenak barne) ordainsari gisa. Erdia proiektuaren hasieran emanen da eta bertze erdia bukaerako memoria aurkeztu ondoren.
- > 1500 euro (zergak eta atxikpenak barne) proiektua burutzeko gastu gisa (izan daitezkeen laguntzaileen ordainsariak, materiala...).
- > Proiektuaren garapenean zehar Uharte Zentroko lantaldearen laguntza.
- > Uharte Zentroan lan egiteko espazioa, izatedun baliabide tekniko eta teknologikoak barne.

\*Kolektiboen kasuan (hainbat pertsona, elkarren arteko formalizazio beharrik gabe), adierazitako sariak taldeak aukeratutako ordezkari bati egokituko zaizkio edo kide guztien artean banatuko dira baliokidetasun-erlazioa mantenduz.

## HELBURUAK

- > Heziketa-testuinguruan artistentzat esperimentazio eremuak sustatu.
- > Prozesu artistikoen bidez eskolaren harremana bere testuinguruarekin birplanteatu proiektu hezitzaileei laguntza emanez.
- > Artea eta eskolaren artean harreman-espazio esperimentalak sortu.
- > Eskolaren berezko proposamenei edo erronkei sarean aurre egin.
- > Nafarroako hezkuntza-komunitatea sorkuntza kolektiboko prozesuetan nahasi.
- > Irakaskuntza-lana lurraldeari eragiten dioten kultur ekoizpeneko proposamenetan kokatu.

## DATAK

- > **Deialdiaren itxiera:** 2024ko urtarrilaren 15, 23:55tan. Aukeraketa deialdiaren itxiera ondoren jakinaraziko da, bi asteren gehienezko epean.
- > **Proiektuaren iraupena:** bortz aste (jarraiak edo aldizkakoak) 2024ko otsaila-maiatza artean.
  - > PASEARTEREN datak: 2024ko maiatzak 16.
- > **Memoriaren aurkezpena eta justifikazio ekonomikoa:** 2024ko ekainaren 30.

## AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Izen-ematea egiteko, orrialde honen alboko barrako inprimakia bete behar da. Bertan, ikastetxeak proposatzen dituen hiru arazoren arteko aukeraketa egitea (Eranskina 1ean deskribatuak) eta honako honi erantzutea eskatzen da:

- > Erreferente artistiko bat (irudia, lotura, soinua...).
- > Propioa den pieza bat, sortze-prozesu bat (irudia, dokumentua, lotura...).
- > Motibaziozko testu bat (400 hitz).
- > Biografia labur bat (250 hitz).

Zalantzak helbide elektroniko honetan argituko dira: [educacion@centrohuarte.es](mailto:educacion@centrohuarte.es) eta gaian "Convocatoria Territorio Escuela Deialdia" adierazi beharko da. Deialdiaren inguruko zalantzak eta galderak bidaltzeko epea deialdia itxi baina bortz egun lehenago bukatuko da.

**\*Garrantzitsua: eskatutako agiri guztiak aurkezten ez dituzten proiektuak ez dira baloratuak izanen.**

## BALORAZIO IRIZPIDEAK

Erantzunen sendotasuna eta egokitasuna kontuan hartuko dira deialdiaren helburuen esparruan.

## HAUTAKETA BATZORDEA

Proiektuak ondoren aipatzen diren kideek osatutako batzordeak aukeratuko ditu:

- > NUPeko EDARTE ikerketa taldeko ordezkari bat.
- > Rebecca Gil, CEIP-IP Buztintxuriko Arte taldeko (talde bultzatzailea) koordinatzailea.
- > Betisa Ojanguren, Uharte Zentroko bitartekaritza eta hezkuntza arduraduna.

## PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Deialdi honetako parte-hartzaileek hurrengo oinarriak eta konpromisoak onartzen dituzte:

- > Laguntza hauek jasotzea ez da bertze erakunde batzuek proiektu bererako ematen dituzten laguntzekin bateraezina, baldin eta ematen dituzten diru-laguntzak Uharte Zentroak bere gain hartzen ez baditu.
- > Aukeratutako lanak egile edo egileen jabetzakoak izanen dira. Uharte Zentroak eta CIEP-IP Buztintxurik online edo paperezko argitalpenen bidez proiektuak bere osotasunean edo hauen zati bat erreproduzitu edo hedatu dezakete, betiere kasuan kasuko autoretzak aipatuz. Uharte Zentroak deialdi honetatik aurrera sortzen den dokumentazio guztia artxibatuko du.
- > Proiektuak argitalpenen, web orrien, bideoen, etab. edizioa badakar, proiektuak Uharte Zentroaren eta ikastetxearen laguntza jaso duela adierazi beharko da honako esaldi honekin: "Este proyecto ha recibido la ayuda del Centro Huarte y el CEIP-IP Buztintxuri /Proiektu honek Uharte Zentroaren eta CEIP-IP Buztintxuriren laguntza jaso du" eta Zentroaren eta ikastetxearen logoak txertatu beharko dira. Bi zentroek haien baimena eman beharko dute aldez aurretik.
- > Jokaera arrazistak, homofoboak, transfoboak edota matxistak; eta oro har pertsonen duintasuna urra dezakeen bertze edozein jokabide izateak laguntzaren berehalako deuseztatzea ekarriko du.
- > Amaitzean proiektuaren garapena biltzen duen memoria (irudiak eta bideoak barne) eta bere justifikazio ekonomikoa eman beharko dira.

**\*BI AGIRIAK ADIERAZITAKO DATAN EZ AURKEZTEAK LAGUNTZA GALTZEA SUPOSATUKO LUKE \***

## ERANSKINA 1

Buztintxuri CEIP etengabe eraldatzen ari den eskola da, inguruko natura, gizarte eta kulturarekin loturak sortuz. Ikastetxeak eraldaketaren aldeko apustua egiten du, kanpo eta barne elkarrizketaren bidez (norberaren barruan eta kanpoan, zein eskolaren barruan eta kanpoan). Eskola gisa dugun helburu nagusia ikasleei bien arteko oreka aurkitzen laguntzea da, eskola artea eta kultura inportatzen eta esportatzen duen kolektibo talde artistiko eta kulturala bihurtuz. Hezkuntza-proiektuaren eta ikastetxeko bideo-bideoklipetan bideo hauetan gure eskolako eguneroko une desberdinak ikus daitezke:

## BUZTINBIDEOKLIPA

### PROYECTO EDUCATIVO-HEZKUNTZA PROIEKTUA

Eskola gisa biografia bat dugu, eta honen barne PASEARTE gure nortasuna definitzen duen jaieguna bihurtu da.

## PASEARTE 2015

Blogeko sarrera honetan gure ikasleek festa berezi hau deskribatzen dute:

<https://cpbuztintxuri.educacion.navarra.es/blog/noticias/pasearte-2/>

Denboran zehar, prozesu desberdinetan gertatu ohi den bezala, egindako bidea aldatuz joan da, alderdi batzuetan irabaziz eta beste batzuetan galduz. Gure prozesuei buruz hausnartu ondoren, berreskuratu nahiko genituzkeen alderdi batzuk badirela ondorioztatu dugu. Horien artean eta garrantzitsuenetako bat, elkarrizketa-izaera hori itzultzea eta hasierako "Pasearte" topagune sozial eta kulturala sendotzea da; auzoarekin batera jarduteko agertoki komunak sustatuz arlo artistiko eta sortzailetik, gure ingurune hurbilena eta auzoko gizarte-eragileekiko harremanak hobetzeko asmoz.

Hobekuntza horiek gauzatu ahal izateko, gustatuko litzaiguke egoitza gure ikastetxean egiten duen artistak zenbait ekintza sustatzen laguntzea, hurrengoei aurre egiteko:

1. Ikastetxeko maisu-maistren kidegoari prozesu artistiko komunitarioren baten bizipena erraztea, horren bidez eskolako artearen kontzeptura hurbildu ahal izateko, joera zaharkituago eta manatuagoetatik aldenduz, esperientzia estetikutik kultur produkziorako bidea eginez, kolektibotasunetik eta proiektu-ikuspegitik.
2. Prozesu horiek eskolaren eta bere ingurunearen arteko elkarrizketarekin lotzea: auzoa berriro gure aliatu egitea, espazio artistiko publiko eta partekatuak sortuz.



3. Arte-hezkuntza deseraikitze eta paradigma zaharkitua desegiteko tresna gisa sustatzea. Artea, eskolara iristen diren hezkuntza-eredu berriak berriz diseinatzeko tresna gisa.

Gu hobeto ezagutzeko:

<https://cpbuztintxuri.educacion.navarra.es/>

Buztintxuri CEIP-ko Arte Taldea



